

# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado  
N.º clasificador 34/60

Vocal Delegado de la Sección de Lengua Vasca  
PEDRO DIEZ DE ULZURRUN

Seigarren urtea — Pamplona, Junio - 1971 — Ekaina — Iruña — 64 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

## ARALARKO BASELIZA

«Udaberri mukizu! Ez nauk gaizki izurratu!». Artzai zahararen esakerak laino beltza darama barnean eta ez diogu hitzik erantzun. Kanpoan eurria ari du. Maiatza aurrera ta, elur berria menditan; negua ematen du. Urtearen sasoi guziak nahastuak direla dio berak: negua ez da negu, eta ez udaberria loretsu. Bitartean ardiak gose eta ganbaran lastorik ez. Zinezko mukizu!!!

Aralarren ginen gu ere, eguerdiko joanak. Ikusgarri da Aralar mendia, «pasaje» dabilen alferrarentzat. Denbora txarra izanik ere, aterpetik ikusten ditu gauzak. Pagadi lerden adar gabeak utzi

genituen bidean; hemezortzi urteko poxpolinen gerri lirainak iduri zuten, beren azal berri bustian. Baztar guziak berde, betearen betez erdimiten pare, lodi ta gizen.

Eta udaberriko pagadiak bezala gazteturik, Mikel Goi-aingeruaren baseliza zaharra. Nork esan lehengoa danik? Aitona politari bizarra kendu eta aurpegia garbitu ondoan, jai eguneko nortasun kementsua itzuli diotela esango nuke.

### HASIERA

Ba zuen beharra. Duela hiru lau urte hasi ziren lanean. Harria agertu lehenik, oinarriak

mugatu, egituraren tankera ikusi eta erreberritu. Orduan sortu zen lehenbiziko kezka: ba ziren han leiho mutu batzuk agertu beharrak. Zer izango ta, mozarabe kutsukoak.

Azterketa sakonagoa egin ondoan, erromaniko leiho bat, zaharragoko harrien gainean sartua zela ikusi zen (ipar aldeko leihoa); eta lñiguez, lanen zuzendari eta etxagile ospetsuak, mozarabe bezala berritzea erabaki zuen.

Lanak geldi-geldi joan dira Mikelen baselizan. Noiz hasiko jakiten ez den udaberri-rako uzten dute, negu sarre-ran, arginek lana. San Juan ingurua izaten da hasi ordu-



ko. Lana bera, urria da: egunetik egunera agertuz joan diren gauzak kontuan euki behar, eta askotan asmo guziak aldatu-arazten dituzte. Baina, egindakoa asko da. Eliz barnea zoragarri gelditu da. Ego aldeko leiho bat kisu berriz estalia; aurtengo udan harriz inguratu ta besteak bezala geldituko da. Nik uste, sakristiako ataria ere ito beharra izango dela eta atzerago agertu dena idekirik utzi. Zoragarria!

### GEROA

Artxueta hegaleko baselizan barne txukun bat ba dugula jakitea asko da. Eta kanpotik zer?

—Eliza inguruko lanetan sartzeko irrikatzen nago —entzun nion behin batez Uranbalitz eta hobe —esaten ziga jaunari. Guregatik, gaur dan.

—Zer asmo dituzue? —nere bigarren galdera.

—Hiru hitzetan sartzen da San Migel-go elizak behar duen guzia: zinborrio, teilatua, eta eliz-ataria.

**Zinborrio.**—Eliz-dorre txiki baten antzeko zerbait jasotzekotan dabiliz. Garai batean ba omen zuen, baina ez jakin nola zen. Eritzi batera egingo dute, elizaren tankerari dago-kiona. Hasiera emana da eta ladrilu zaharrez ari dira.

**Teilatua.**—Zink edo zinkkeri horrekin da oraikoa. Egia esan, berea egin du hainbeste urtez itaxurak kendu bai ditu. Halare, ez da hori hain jaun haundiari dagokion sonbela. Harrizko teilatua jatorra botako diote, noski.

**Eliz-ataria.**—Egur-pila arteko ezkaratz luzea datorkit gogora, Egurtegi, ardagela, jarralki eta olezko eskilera zutak; San Migel-go sarreraren luzera! Mehar eta luze bezain gauzez betea. Ezin da eliz-atari berriaz hitzegun, oraiko bizitegia den oilategiaz min-

tzatu gabe. Pareta zahar haiek hizketan ba-lekite! Laister lu-rean izango dira sukalde eta lo-gela antzeko aterpe lotsagarriak. Atsegin hartuko du norbaitek. Hantxe izango da San Migel-go elizaren sarre-ra eta atari nagusia. Eliza zahararen aurpegi berria: harrizko eliz-ataria.

Noiz ikusiko ote ditugun hauek guziak? Ez zuzendariak nahi bezain laister; eta berdin, askok uste baino lehen.

### AZKENA

Bitartean, Aingeru gonadunaren kaiola errejatzkoa hutsik dago. Leze ahoa mehar-rago, belarriak lehertzeko estatusunekin. Garai bateko lapurren bildurra galdua balitz bezala, ezkerreko aldare txikian du Mikel Goi-aingeruaren irudi urrezatuak bere egoitza. Baimen bereziakin baizik ikusten ez zen erretablo miresgarria ere, joan eta ikusi besterik ez dela utzi dute aldare nagusian. Zerbait aldatzen ari da Aralar mendian. Gure haur denborako erensuge, leze zulo, gate ta bildurrak iruti xamar gelditzen dijoaz. Bideberriak erretasuna sortu du eta ostatuak giro berria ekarriko dio.

Gure San Migel-go gauzak, Jainkoak hala nahi edo guk hala merezita, utzikeri haundian egon izan dira. Azkenaldi hontan dira aldatzen hasi. Euskalerrri guziko elizarik zaharrena bezala jotzen dute jakintsuak. Negu luzea atzean utzi ta udaberri pozgarrian sartu dela esango nuke nik. Orain baseliza, laister ostatu berri apaina, gero... nork daki? Hasiera da zailena.

Mendian eurria ari du; hotz da neguan bezala. Artzaia ixilik dago eta ardiak marrakaz. Luzea da Euskalerrriko negu beltza; udak berdinduko ditu zuloak, San Juan ondoreko egunetan.

J. M. Satrustegi



# ZANKOZA (SANGÜESA)KO LAUGARREN "LORE YOKUAK" - 1971 URTEA

## ELIZAREN ITZA



## Eliza gaurko munduan

Guda erabat baztartzeko, herrialde guzien gañetik legoken agintaritzak bat sortu behar litzake, erabakitzen duena betearazitzeko nahiko indarrarekin, bien-bitartean, ordea, guda atzeratzeko egin diren ta egiten ari diren egiñahalak, ez dira inon ere gutxietsi behar.

Badira aunitz, beren goien-goieneko kezketan itorri, ala ere saiatzen direnak gorroto duten guda zapaldu nahian, naiz berenarekin aurrera atera ezin ahal izan, olakoeri lagundu, eragozpenak kendu ta aipatu beharrean gaude guziok.

Jaungoikoari ziñez eskatu behar diogu, eman zaitotela, etsi gabe asi ta gartsuki burutzeko kemena, egingizun aundi hontan, gizon guziak maitatuz, pake gozo bat sortzen.

Hortarako mugaz gañetik espiritua edatu, beren herri barruko berekoikeriari ta besteak menderatzeko griña zakarrari uko egin ta gizadi osoari begirune sakon batekin so egin, batasunera deramaki bidean atzerapenik izan ez dezan.

Arnak uzteko ta pakea edatzeko jalki diren asmoak ta hortarako bildu diren nazio arteko batzarrak, lanbide hontan sortu diren len-urratsak bezela jo ditezke, ta ziñez lagundu behar dakiote, geroan zerbait onurakor biltzekotan.

Baño lan hori ez da bakar batzuk lortu dezaketena, bakoitzak bere pentsakera zuzendu behar du. Herriak buruzagi direnak beren herriko aurrerapena ta gizadi guziaren erosotasuna landu behar badute, herriaren iritzi ta zer esana alde iduki behar dute; herriko edo mendekoak elkarren etsai, zita gaiztoan, enda artzoko gorrotoan, beren irudituetan tenkor, zatiturik, talka egiteko prest badabilz, deus gutxi egin dezakete agintariek.

Beste era batera ezi behar jendeeak ta pentsakera berri bat emearazi gizarrean. Gizonen eziera, gaztediarena batez ere, beren gain daukatena eta herriaren iritzi ta pentsakera manejatzen dutenak, egiteko gaitza deramakite eskuetan, mundu berri bat, obeagoko bat jasotze arren.

### DONA PHALEU'ko Herria

Bache-Nafarro (Be-Nafarro)'ko Dona Phaleu herriko Saria

Gaia: Be-Nafarro ta Garai-Nafarroaren artean, nola geroakoan, turismoa, herri-kultura, sal-erosi ta artu emanak indartu ta zabaldu. Iru mila pezeta (3.000).

### CONDICIONES DEL CERTAMEN

1.º Todos los trabajos deberán ser originales e inéditos, redactados en euskera, escritos a máquina en cuartillas o folios por una sola de sus caras y por ejemplares triplicados salvo los cuentos, si son ilustrados.


2.º Se presentarán sin firma ni indicación alguna de su autor; constará claramente el Tema a que concurre y el Lema que lo distingue. Se acompañará un sobre cerrado en cuyo exterior se indicará también el Tema y el Lema, y en su interior se repetirán éstos y se pondrá el nombre y apellidos y domicilio del autor. Serán excluidos los trabajos que de cualquier modo quebranten el anónimo.

3.º El plazo de admisión de trabajos finalizará el día 15 de agosto, a las veinte horas. Se presentarán dirigidos al Vocal de la Comisión, don Miguel Pérez Samaniego, calle Mayor, número 37-2.º piso. Sangüesa (Navarra).

4.º El fallo del Jurado —que se designará por la Comisión— se hará público por la Prensa y Emisoras de Radio que nos presten su colaboración, aparte de la comunicación directa que se enviará a los autores premiados con la suficiente antelación y a quienes encarecidamente se ruega la asistencia para no restar brillantez al acto que se celebrará (D. m.) el 13 de Septiembre próximo.

5.º El Jurado podrá, si así lo estima, declarar desierto algún tema, dividir los premios o aplicar los de un tema a otro u otros en forma de accesit o segundos premios.

6.º Se entenderá que renuncia al premio que le haya podido corresponder, el autor



que no se presente a retirarlo dentro del mes siguiente a la fecha de celebración del acto de adjudicación.

7.º Los trabajos no premiados podrán ser retirados por sus respectivos autores que se presenten a diho objeto, en el plazo de tres meses, contados desde el acto indicado, acreditando su personalidad, en cuyo momento y para este fin solamente se abrirá la plica o sobre para conocer su identidad. Pero los originales premiados quedarán en propiedad de la Comisión Organizadora, quien se reserva el derecho de editarlos total o parcialmente, en forma conjunta o separada.

8.º Cualquier cuestión no prevista en las presentes condiciones, será resuelta por la Comisión y Jurado calificador —que oportunamente se dará a conocer públicamente, relacionando las personalidades que lo integran—, siguiendo la costumbre de esta Clase de Certámenes.

(Nafarroko Diputazioaren eta bertako Aiuntamenduaren geriza ta laguntzapean, baita Espainiako «Información y Turismo» Ministerioaren lankidegoarekin).

### EUSKERAZKO SARIAK OLERKIAK

Iruñeko Herri Etxeko «Caja de Ahorros» delakoaren Saria

Bost mila pezeta (5.000) edozein euskalkitako euskeran Nafarroari buruz egindako poesia oberenari.

### HITZ LAUZ

Baztango Bale eta Herri-Elkargo Agurgariaren Saria

Zazpi mila ta bostehun pezeta (7.500).

Gaia: «Nafarroko gaztedia 1971-1980 amar urie buruan». Baztango Bale eta Herri-Elkargoari buruz zerbait sartzea komeni litzake.

### ERRONKARI IBARREKO BILTZARRA

Gaia: «Erronkariko Balea. Askatasun gudan» (erderaz ala euskeraz). Bost mila pezeta (5.000).

### JOSE AGERRE

Iruñeko «Euskal Herriaren adiskideak» Elkartearen Saria

Gaia: Idazlan bat, hitz lauz, Nafarroari buruz euskeraz. Bost mila pezeta (5.000).

## EUSKALTZAINDIAREN BATZARREA



Joan den maiatzaren 28an, arratsaldeko lauretan, Euskaltzaindiak bere hileroko batzarrea egin zuen Donostian, Diputazioko jauregian. Hona hemen batzarrean erabilitako gairik nagusienak:

«Caja Laboral Popular» delakoak 50.000 pezetako laguntza eman du, Euskaltzaindiaren liburutegia hobetzeko, eta urteko beharizentarako.

Liburutegi hortarako hartu dira: Jean Barbier-en «Antxitxanburu-ko buhamiak», P. Lafitte euskaltzain jaunak eskeinia; eta Kontzilio aurreko liturgia osoaren itzulpena Belolzeko Benediktanoek egin eta Aita Iratzeder euskaltzain jaunak eskeinia.

Idazte arauak estudiantzeko batzordeak prestatu duen lana aztertu zuen batzarreak, eta onartu ere bai, aldaketa batzuekin. Hona hemen lan honen titulua: «Puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri!».

«EUSKERA», Euskaltzaindiko aldizkariaren hurrengo zenbakia urte eztaiak gogoratzeko izango da, hartarako lan, hitzaldi ta abarrez hornitua.

Bertsolarien txapelketa nola antolatu estudiantzeko jarri zen batzordearen izenean Aita Antonio Zavala euskaltzainak txosten bat irakurri zuen antolakizun berri baterako era eta asmo batzuk agertuz.

Euskaltzaindiaren hurrengo bilera Beraskoitzan (Lapurdin) izango da, uztailearen lehen igandean, Leizarraga idazlearen omezez, aurtan betetzen bait dira 400 urte jaun honen Testamentu Berria irten zela. Bileran hortan Lafitte, Lafon eta Akasola jaunak hitzaldi bana egingo dute Leizarraga eta haren lanen eta gairari buruz.

Irailekoa Aramaion egingo da, hango Udal eta Arabako Diputazioaren babesean, hau ere lehen igandean.

«Colegio de Arquitectos» delakoaren aginduz etxegintza hiztegi bat prestatzen hari da Euskaltzaindia, eta lan honen berriak eman ziren.

«GOIZ-ARGI» aldizkari ohar bat bialtzea erabaki zen, Gaztaniaga jaunak zeatasun gutiriken bertan idatzi duena zuzentzeko.

«Hegosa» delakoak aditz batasuna aztertzeke jarri duen sari-keharako bost lan aurkestu dira.

Azkenik Anbroasio Zatarain jaunak «soin» hitzaren esanahiaz zerbait argibide eman zuen.

(EUSKALTZAINDIKO PRENSA BULEGOAREN AGIRIA)

## BND EUSKAL HERRIKO LEIOA

### «EUSKERA» HITZA GAZTELANIAREN BIDEAK; ZER KULTURA DAN EUSKAL HERRIAN; NOLA GAURKOTU, BERRIZATU, ZABALDU; ...ETA, ETA.

Erdeldunek «euskera» esateko «vascuence», edo «vasco» esaten dute. «Euskera» erderaz esateko ere gure Euskal Herrian maiz hitz berbera esaten oi da: Euskera. Hala ere erderaz mintzatzen «vascuence» esan beharrean «euskera» esan batzuek halako politika kutsu bat sumatzen diote, ez «euskera» esategatik politika baten señaleta delakoz, batzuek hoiek gauz batzuentzako oso minberatuak direlako batziki.

Orain Gaztelaniaren Hizkuntzaren Akademiak «EUSKERA» hitza bere hiztegian sartzeko on hartu du.

Hemendik aitzinean erderaz ere «vascuence», edo «vasco» ez ezik «euskera» ere bai esan ahal izango da.

Nik erderaz hitz egiten gure euskal mintzaerari «EUSKERA» esaten nion beti eta orain bateren batek esaten baldin badit ia zer esan nahi duen «euskera» arrapostu galanta izango dut alajaña!... «Compra el Diccionario de la Lengua Castellana y lo verás»...

Neretzat beintzat «vasco» edo «vascuence» esatea baño «euskera» gustatzen zait gehiago.


Aunitzek esango dute hau ezjala ezer; halaxe da, baño «zerbait» bada.

### BAIONAKO «KULTURA ASTEA»

Eldu den Uztailearen irugarrean (larunbatz), Baionako «Kultura Astea» asiko da. Biharamunean (igandez) Elizkizun Interkonfessionala izango da goizean; Arratsaldean erromeria euskal kantaririk.

Asteleheneetik ostiraleraño eskolak, lanak, eta elkarhizketak izango dira.

Baionako «Kultura Aste» hontan Euskal Kultura izango da nagusi. Zer dan euskal kultura; zeintzuk dira kulturaren ideiak berriak eta bideabarrak zeintzuk dira euskal kulturaren ideiak berriak; gaurko kultu-



### GABRIEL, ARESTI JAUNAREN LIBURU BERRIA

Nere eskuetara eldu da Bilboko Gabriel Aresti euskal idazlari famatuaren liburu berria: HARRIZKO HERRI HAU izenekoa.

«LUR» Editoriak argitaratu du. Txalogarria benetan Arestiren ahalmenak baita ere «LUR» Editorialaren lan goragarria.

### «VENECIA-SATURRAN» EUSKAL KANTA SARIKETA

Datorren Uztailearen 28 garrenean Motriko herriko auzo den Saturran'en VENECIA delako FESTA TOKIAN «VENECIA-SATURRAN» izeneko kanta jaialdi ta Sariaketa bat egingo da.

Kantu guziak euskeraz kantatuak izan beharko dute eta Sariak berebizikoak, izugarriak nere ustez izango dira.

Hara nolakoak dira:

Lehengoa: 75.000 (irutan ogei tamabost) pezetakoa.

Bigarrena: 50.000 (berrogei tamabost) pezetakoa.

Iruugarrena: 25.000 (ogei ta bost) pezetakoa.

Ez dira makalak benetan.

Berri gehiago nahi duenak zuzenbide honetara idatzi dezake: ABARTADO 1.148-BILBAO.

### «HIBAI» EUSKAL ALDIZKARI BERRIA

Deustuko Unibersidadeak «Euskal Kultura Mintegia» delakoa sortu zuen, eta orain Sail honen ardurapean «HIBAI» izeneko euskeraz idatzitako aldizkari bat argitaratzen asia da. Lanak denak euskeraz izkribitua daude, eta gehienak gazteen lanak dira.

Ongi etorria izan dedilla biotzez.

### JEAN HARITSCHELBAR JAUNA ALKATE

Jean Haritschelbar jauna txit eza-guna da Euskal Herri guzian, Frantziako aldea Nafarroan sortu eta bizi bada ere egoaldeko Euskal Herrian badugu ere harren berriak.

Haritschelbar Baigorriko herrian jaio zan. Euskaldun zintzo, euskaltzale sutsu eta gañera Irakasle ia-kintsua da. Hitz gutxitan: kategori aundiko gizona.

Burdeosko Unibersidadearen «Euskera ta Euskal Literaturaren» Mai-xua da, baita ere Baionako «Euskal Museo»-aren Zuzendaria eta «Euskal Akademiaren» Bigarren Lehendakaria.

Orain bere sorherriko Alkatea bere herrikideek autatu dute. Zorionak!

(6'gn orrian jarraitzen)

# «OSKORRI»: ABESLARI TALDE BERRI BAT

Orain hilabete bat, OSKORRI izeneko talde berri batek bere burua agertu zeukun Deustuko Unibertsitatean. Taldea osotzen zutenak hauek ziren: Itziar, Natxo, Juanma eta Imanol. Lehengo biak aurretik ere ezagutzen genituen, baina besteak ez, eta zin zinez esan dezakegu aurrekoak bezain onak direla. Talde honetako guztiok, Itziarrek ezik (lehendik baitaki) euskara ikasi edo ikasten dute, beren buruak buru-betari euskalgintzan murgilduta daduzkatela argi eta garbi erakusten daukutelarik.

Berauen kantaldi bikainaren ondoan, haiengana joan eta galderok egin genizkien:

—Nola sortu da OSKORRI? (Itziarrek erantzun).

—Taldea bat taitzeko asmoa genian aspaldian, egi esan. Natxo eta biok ihazdanik ari gintuan elkarrekin kantatzen, eta gerotxoago Juanma eta Imanol ere etorri zitzaizkiguan; guk geuk oraino jende gehiago etortzea nahi genikek, honela kantatu bakarrik ez, baina musikal teatro gisako zerbait egin dezakeen talde bat sortzeko.

—Zergatik kantatzen duzue euskaraz?

—Guk geuk hasiera batetatik jendearengana heldu eta geure kultura berpizteko on litzatekeen zerbait egin nahi genian; horretarako behartuta ikusten gaituk euskaraz kantatzera, nahiz eta guretzat berau sakrifizio bat izan, oraino behar bezain ongi ez baitakigu. Hala ere guztiok saiatzen gaituk ikasten ahalik eta sakonenik.

—Nolako kanta da zuek egiten duzuen?

—Kanta herrikoien larrialdiaz asko mintzatu duk, baina gerauek uste diagu, eguneroko errealtatea kantatuz, jendeagana hel daitekeen norbait dagoen artean, kanta herrikoiak iraunen duela; hitz gutitan, larrialdi edo krisis hau ez duk, gure ustez, kanta edo musika herrikoienena, kantariena baizik.

—Orduan, zuek folk-musika egiten duzue?

—Hara... folk-musika zeri deitzen zaion. Gerauek, oraino euskal kanta berria zaharberitzeko eta berpizteko aintzinako kantategiak aztertu beharra ukan diagu, haietan gure Herriaren kanten sustraiak topatzeko. Hala ere, ez ditiagu lehengo kantak birkantatu nahi, aitzitik, guk nahi duguna hauxe duk, oraino problemak geure kreazioaren bitartez oraino eta euskal musika batez adierazi. Horixe besterik ez.



—Zein da zuen helburua?

—Gure helburua eten gabe aldatuaz joatea duk; oraino musikal teatro bat egiteko asmoa diagu, baina oraino guretzat berau zailegi dukek, eta lortu dugun bakarra, oraindik, hauxe dela esan nierzakek: kanta luze bat errepresentatzea.

—Orain arte nondik ibili zarete?

—Bizkaitik gehien bat, Gipuzkoatik eta Arabatik ere zertxobait, eta Nafarroan behin bakarrik, Lekunberrin hain zuzen ere. Bizkaian eta Gipuzkoan giro oso ona diagok, eta ba zirudik Araban ere gero eta hobe sortzen ari dela honelako gauzotarako. *Nafarroa duk guk lan gutien egin dugun lurraldea, baina interes handi handia diagu Nafarroako herrietan ere kantatzeko, eta oso pozik joanen gintuzkek hara, bertakoek deituz gero.*

—Zeintzuk musika-tresna darabiltzazue orain?

—Oraintsu arte gitarrak jo diagu ia beti; gerotxoago panderoa, pandereta eta xilibitu gozoa sartu ditiagu; azkenean, triki-trixa, akordeoia, xistua, xirula eta nafar dultzaina ere saioak egiten ari gaituk. Honenkin, ordea, ez diagu tradiziozko folklorerik egin nahi, aitzitik, euskal kanta modernoan lehengo musika-tresna zahar eta jatorrak sartu eta erabili nahi ditiagu. Hori duk guztia.

Andolin Eguzkitza

(Deustuko Euskal Kultur Mintegikoa)

# Nafarra dan zaindaria Franzisko Santuari, begira gaude danok. Omen aundi au zuri. (2)

Oraindik geigo: Aldi batzuetan itz eiñ izkuntz bakarrian, gende entzunlek jasotzen zuten nork bere izkuntza berian.

Ibillia zan eziñ geiago ango lurralde denetan oñ utsik noiz nai ta oñez beti Jenbor otz ta beruetan.

Sinismenaren egi bakarrak Japon'en sartuak zitun, ta beste sei bat lurraldietan bertze ainbertze egiñ zun.

India lurretan Kristoren'gana erakarri zitun onek eunka mill'asko gizon t'andriak laguntzen ziola ongi Arek.

Aundizki aunitz erregeetaño Kristo'gana urbillduta, Bataio urakiñ garbitzen zitun oroimenez apainduta.

Aundi t'aundiak egiñagatik fedia zabaltzeko lanak, aiñ zan umilla ta aiñ apala, artzen zitun gauz utsetzat.

Umilla zenen indar aundiaz beti belaunikatuta idazten zion bere nagusi Ignazio zala ezaututa.

Ebangelioa zabaltzia gatik sentitutzen zun berua mirari asko t'aundi bitartez zegon Jaunak indartua.

Itsu bateri emana zion argi osua ikustia. Ta ur gazia on ta gozuan nai izan zun biurzia,

bertzela egarririk illko ez baziran bortz eun bat langillientzat, t'aien alde errukiturik artutzen zitun anaitzat.

Denboretako izana zuten ur ona eta naikua

iturri ugari onen bitartez basa mortuan sortua.

Ur ontatikan artu ta eraman gaxorik zeuden askori, ta sendaturik gelditzen ziran. Esker onenak Jaunari!

Ill asko ere bixtuak zitun Franziskok mirari bidez. Ill obitikan ateratzian eskertzen zuten biotzez.

Noiz nai onetxek geroko gauza gertatuko ziradenak agertu zitun argi ta garbi ala izana ziranak.

Azkenik ill zan bete betia lan eta irabaziaz. Onen gorputza estali zuten kari bizi ta zuriaz.

Orréla zutén illaute askotan begi aurretik gordia. Etzun onetxek erre, ez desegiñ. Bazirudin, bai, bizia.

Bere gorputza oso osuak etzun usteldu itxurarik. Bertatik beti ateratzen zan alako odol garbiarik!

Ta bere soña Malaka aldera eramana zutenian pestia ta gaitzak alde egiñ zuten santutasun indarrian.

Gregorio amabost garren aginduz, (jakiñen gañian ze'olako ainbat mirari arrigarriaz) autatu zun Aldareako.

Ta gero Pio amargarrenak jarri zun Patroi ta buru «Sinismen alde Zabalkundian» ari diranentzat. Badu,

lan onek egiz bere ordua geigo gabe moztuzeko. Eskatze'izugu zuk zerutikan danori andik laguntzeko.

Joaquin Aldave - 1971

## Andima Ibinagabeitia Saria

### Sari Araudiak

- 1) Euskera Lagunen Elkartek igaz bezela, aurten ere, Sari hau zabaltzen du euskal idazle ta jakintsuentzat; euskeraren indarberitze, sakontze ta batasuna helburuz artuaz.
- 2) Elkartek bere ardurapean artzen ditu Idazlan Sari honen antolatze, zabaltze, epaitze ta sari-emaitza.
- 3) Saria bakarra ta eman beharrekoa izango da. 1971-go azaroaren 1'ean, Andima zanaren eriotza urte-mugaz emango da, bere zenbatia USA'ko 1.000 \$ izango dalarik.
- 4) Gaitzat EUSKAL IKASTOLETARAKO TEXTOAK artzen dira. Amar urtetatik 15 urtetarako ikas-maillak osatzeko bereziki.
- 5) Texto horretan edozer ikasgai erabili diteke, ala Fisia, Kimia, Edesti, Lutelesti, Matematik, Teknia-gai, Biologi, Fisiologi, Zenbakuntza t. a. (Enziklopedi ta Botanika ez ezik) beste edozernahi gairi buru emanaz.
- 6) Lanaren luzeak, 32/21,50 ehuneko orrian eta bi lerro-unez, 200 orrialdetik goruzkoa beharko du izan; marrazki edo apaingarriak kontuan artu gabe.
- 7) Lan hoek lehen-idatziak (orijinalak) edo euskeratuak izan ditezke.
- 8) E.L.E.'ren gogoa da, lana Euskera Batuan idatzia dedin. Ala ere edozein euskalkitan egindakoak onartuak izango dira.
- 9) Urte beteko epea ematen zaio egileari lan-saritua argitaratzeko. Horrela izan ezik E.L.E.'k bereganatuko ditu lanaren gaineko eskubide osoak. Hartzen diran beste lan guziki antolatzaileen eskuetan gedituko dira, bere artxiboetan, alegia.
- 10) Lanak uztaren 31rako bidalgoin ipiñiak izan beharko dira, E.L.E.'ren zuzenbidera (Apartado 51.730 - Sabana Grande - Caracas - Venezuela), bertan «Andima Ibinagabeitia Saria» aurrean idatziaz. Lanak azal-buru (lema) batekin izenpe-tuak beharko dira. Azal-buruaren giltza beste sobre batean —«Andima Ibinagabeitia Saria» - GILTZA— argi jarriaz, zuzenbide berera bidaliko da.
- 11) Araudi horiek aurrera eramateko nolanhiko eragozpenik sortuko balitz, E.L.E. ko zuzendaritzak erabakiko luke. Caracasen, 1970 go azaroa.

## UR ZURRUTZA

Arkaitzean beiti, indartsu ta aparra dariola, iausten dan ur-zurruzta sendoa... zein eder zaigun, zein eder!

—oOo—

Uoldearen inguruetan pozik nabil, arimarik ez dabilenean an ur-bil. Iturri-ondo au ta ni elkarrenak gera, aspalditik.

Urak eta urak dakaraz iturriak; aldiero berriak. Urak eta urak datorz gainbehera; ta bat bakarrik ere aurrekoaren ta atzekoaren era berekorik. Urak eta urak doaz geditu gabe; danak garbi, zauli, dantzari trebe.

Iturri untako ur danak purruskatzeta ta abarrikatzen ditu beheko osin zorro aundi ezin aseak, bertatik beiti prestuago ta eztiago iarrai dezaten beren bidea ta lana.

Prestutuz bezala onduz ere ioanen dira, ezetasun gozoakin lurra laguntzeko. Eztiago iaustiz, ta guretzat eskurago iarritz, bizi geran guziok inartzetik zainduko gaituzte, gure gorputza emeki emeki urertzuz.

Lar bat edo bertze, ote ta belar tzar batzukin, ur-zurruzta orren bi aldetan: ziturik ez dakarte iñoiz.

Se autoriza... para la investigación. © GOBIERNO DE NAVARRA

Zumarika antzeko zartaka bat ere, bazen an artemein arte, osina baiño lau bat zegaz gorago zegona. Unen bizitza ta bere egitekoa, ikusgarriak; neretzat seurik...

Norabait, arkaitz tartetan, sartuak zeuzkan erroak; ta amatzat lurraren ordez arkaitza artu balu bezala bizi zan.

Ongi bustia kanpotik; baiño barenerez idor; amaren antzera.

Bere lana? Arritzekoa, zugaitza izateko. Iturritik beiti zetorren ur mota guziari gau ta egun geditu gabe agur ta agur aritzea, zurrutaren oñetan tinko egonez. Bertze ezertarako ere ez zeukan astirik.


«Egon ta zahartzen; datorrena ongi artzen; doana bialtzen» zeraman bizitza landare kokkorak, lengo sorgiñak bere xahartzaro luzea zeramala zion bezala.

Noizbait, gaur egite batean geiegi makurtu zelakoz edo, esker gabeko ur bolada arro batzuk errotik atara ta leze zolarraño eraman zuten betiko.

—oOo—

Orduan orduko iauntxoei beti

Ibarrondo



«amen» erantzunaz bizitzeak ta deneei «agur» egiteak au ekarri dio azkenean. Sari au dago olakoentzat gelenean.

Zuaitto goresleari gertatutako zoritxarrean, ez da oharu ere ur-zurruzta sendoa. Aundi da, aundi, tipian oharrezko.

Uda beroko gauz lorea maiteki ta ixilean ezatzen duan intza... bertzerik da!

# IKASI, MIKASI...

## GEZURREN EZURREK...

—Jainkoak diola eun on, jaune.  
—Ola, Batiste!  
—Nee amak esan dit, lendabizi beorrei galdetzeko iya betaz daon.  
—Aldi baterako, betaz nago. «Ikasi-mikasi» prestatzeko asmoan nengoan, baño lan au eiztarien lana bezalakoa da: ez da lana, baizik erne egon bearra...  
—Nik al banezakiok laundu...!  
—Esan zer nai duzun, eta seguro aski lagunduko didazu.  
—Nee amak dio, beorrek kontu polit asko dakizkila...  
—Besterik ez bada, banaka batzuk kontatuko dizkizut.

### ¡OTSOA, OTSOA...!

—Bai omen zan artzai bat, lagunekin beti txantxetan zebillena. Ardiak bordatik ateratzea zijoala, noiznai asten zen oiuka: ¡OTSOA, OTSOA! Lagunak laisterka urbiltzen zitzaizkionian, ¡ja, ja, ja! eginda, esaten zien: «Beragiaz —broman— oi ugin dizuet...». Eta, ola askotan. Baño bein, egiz, otsoa irten zitzaion. Indar guztiakin: OTSOA, OTSOA...! oiuka egondu zen alperrikan. Bere lagunek, txantxetan zegoalakoan, etzioen kasorik egin, eta ¡otsoak jan zuan...!

—Ez da gertatutakoa izain. Gañekoan...

—Gertatutakoa edo asmatutakoa, biñepin irakaspén ederra du: gezurra, agudo edo berandu, esaten dunarentzat kaltegarri biurtzen dela.  
—Orain, konta beza beste bat.

### OLLASKO OSOA, ZAKURRARENTZAT...

—Famili batekoak bazkaltzeko zeudela, ara non ikusten duten leiotik, gizon erdi aide eta gibel aundi osoa, beren etxerantz datorrela. Igande zelako edo, suan gañen zuten izugarriko kazola bat, arroza eta ollar osoakin. «Orrek —dio etxeko nagusiak— gure etxean naiko du bazkaldu gaur ere... Gorde zazu —dio emazteari— kazola ori ikazlekuan». Ordu laurden bat solasketan zeudelarik, etxeko nagusiak esaten du aide tri-pazaiari: «Gaur elkarrekin bazkaldu bear giñun, baño, ikusten duzu, itsurez, Ostegun Santun gaudela emen, Obe izango duzu zure etxera joan...». Ontakoan, etxeko zakurrak zerbait usaindu zuan, eta ikazlekuan sartuta, ara nondik irtetzen den ollarra lepotik artuta, arroza dariola...

—¡Oi, oi, oi...! ¡Ze lotsa izango zuten...!

—¿Ikusten duzu, nola gezurrak ondore txarrak dakazkila Arrazoie du esaera zar arrek: «Deabruak eltzeko asko egiten ditu, baño estalki gutxi...».

—¿Beste kontu bat...?

### ¡ORAIN, BATEREZ!

—Erromako istorian irakurri dezakezu kaso au. Trajano Enperadorea ren izena entzun duzu noizpait?

—Españian jaioa zela uste det, eta kristautentzat oso gaiztoa.

—Egi da. Gaiztoa izandu zen. Baño gauz bat ona biñepin ba zuan: gezurraren gorrotoa. Aditu gertaketa au. Trazia'ko gerra bukatuta, ekarri omen zuan berekin ango erregearen seme zarrena: amabion bat urteko mutiko lirain eta atsegingarria. Trajanok ain maite zuan, eskeiñi omen zion bere ondoan erregetzat izentatuko zuela. Baño...

—Baño, ¿ze?

—Bein, goiz guztian, mutikoa jostaketan ibilli zela jakin zuelarik, etxeratu zenean, galdetu zion: «¿Nondik zatoz?» — «Eskolatik», dio mutikoa. Trajano, asarre bizian, txutitzen da bere eserlekutik, eta esaten dio: «¡Ain lotsagabeke gezurra esan didazulako, ez dizut emango eskiñitako erreinoan». ¡Eta, etzion eman!

—¿Gezur batengatik!

—Askotan, gezur txiki batek erakusten du barneko txarkeri aundia.

—Iya, beste kontu bat..., baño ez gezurtiena.

### JORJE WASHINGTON

—Ez. Au, egitieta da. Jorje Washington, Ameriketako Lendakari famatua, mutiko zela, igo omen zen aran zugaitz batera eta autsi zun adar aundi bat. Bere aita, alperrikan baratz mutillen artian jakin naiez ibillita, azkenian galdetzen dio bere seme kutunari: «¿Zuk badakizu nok autsi ote dun aran zugaitz onen adarra?» — «Ni izan naiz, aita». Aitak, plakatuta, dio semeari: «Asko maite nuan zugatz eder ori, baño mille aldiz geiago nai det zuk beti egi esatea. ¡Barkatua zaude!».

—¡Aitama guzik, gizon ua bezalakoa balira! ¡Beorrek ez daki, zeñ errax arbazta artzen dun nee amak...!

—Bai, Batiste; ba dakit zure ama aski bizia dela. Baño, ¿zeinbat gezur esaten dizkiozu? Ola delarik, egi esanda ere, ez dizu siñisten, eta... Esaiozu beti egi, eta ez dizu joko...

—Ez det, baa, geiago gaiztakeririk eingo; ta, egiten badet ere, ez diot gezur esain.

—Nik ere, nere eta zure aitaman partez, diozut: «Barkatua zaude». Baño kontun artu betiko, gezurra gauza itsusia dela; gaur edo biar, dena jakiten dela. Zuk, bazkaltzekoan, ezurrik nai ez duzun bezala, zure aitamai etzaie gustatzen gezurrik. ¡Egia, mamia da, eta gezurra, ezurra...;

A. ASTIZ ARREGI

# Munduko pilota Txapelketak, Donostian

NAPARRUA'KO PILOTARIAK OHORETAN!

Donostian, pasatu dan urtean jokatutako Munduko Pilota Txapelketetan, naparrak pelota jokuan daukaten nagusitasuna, erakutsi zituzten.

Españatarrak irabazi zituzten LAU txapelketatik, Bi Naparruak irabazi zituzten: eskuz-banazka (Maiz), eta paletaz, larruzko pelotarekin frontoian (Anzizu - Reizabal).

LAU txapeletatik, Bi Naparrurako. Ez da gaizki!

Erran dezagun, bide batez, profesionaletan ere berdin Naparrua, goi-goiko mallan arkitzen dala. Zesta-puntan izan ezik, beste era guztira naparrak nagusi dira: remon-tez, eskuz eta ere... palaz.

Remontez, esan liteke, naparrak, jokalariek denak: Lecunberri... Arbizu... Iriarte... Raul... Arizcuren... eta abar.

Eskuz, Retegi eta Lajos, bi nartar irabazi dira, txapelketaren AZKENA jokatu dutenak.

Palaz, berriz, Iturri... Alsua... eta beste aunitz, or daude Bilbo'ko pelotakolekuan onentxoan artean.

Ohore, beraz Naparruako pelotari eta pelotazaleiri...!

—oOo—

«PELOTA VASCA» DEITURA, BAZTERRERATU BEAR DA...?

MEXICO'REN ESKAERA BAT

Munduko Pelota Batzak igaz Donostian egin zuan batzarrean, Me-

xicoko ordezkari zan, Mac Gregor jaunak eskatu zuen:

Pelota Bazkun ori, «FEDERACION INTERNACIONAL DE FRONTON» deitu bear zala, eta ez, oraindiano bezela, «FEDERACION INTERNACIONAL DE PELOTA VASCA».

Eskaera ori, au da, pilota jokuari, «pelota vasca'ren» ordez, «frontoiko jokua» deitzea, itxurarik ez duan ganorakabekeri bat besterik ez da: Ez dut, ez buru ez belarrik.

Baño aldaketa ori, gure iduriko aitzaki bat besterik ez zan. Mac Gregor, Mexio'ko ordezkariak, zinez eta benetan nahi zuana zan, «pelota vasca» deitura ori bazterreratu. «Pelota vasca» deitze orrek naigabetzen bai ditu bera eta... beste asko.

Orrengatik oso ondo deritzaigu, Jose Maria Donosty idazleak, egun aietan, Donostiko egunkari batian idatzi zitun itz auek emen berriztea:

«...Fueron los vascos quienes hicieron del juego de pelota, no sólo su deporte favorito, privativo y genuino, sino quienes le dieron la importancia, la universalidad, el carácter, el estilo, las leyes y modalidades, el ámbito del frontón y todo cuanto ha hecho de la pelota vasca uno de los más nobles, viriles y espectaculares juegos deportivos de los tiempos modernos».

«...Hemos dado (los vascos) a este juego tal ímpetu, carácter y personalidad, que no obstante la plenitud y universalidad que «nuestro» deporte por antonomasia ha alcanzado, en modo alguno le han mejorado esa especie de patente o marca registrada con que se le conoce en los anales del deporte «la pelota vasca...». Ori esaten du Jose Maria Donosty, idazleak.

FEDERACION ESPAÑOLA DE PELOTA...

Jose Maria Donosty'k idazten duanaren ondore, ez dago izpi baten zalantzarik, sortzez euskalduna ez izan arren, «pelota vasca» deitura ondo ezarria dagoala.

Ondo ezarria, pelota «internacionala» danian, eta berdin «nacionala» danian. Eta emen oartxo bat.

1925'garren urtean, «CONFEDERACION ESPAÑOLA DE PELOTA VASCA» izenarekin, Donostian sortu zan, Españi guziko Federazioak batutzen zituen elkarte.

«...Madre de la actual organización federativa fue la antigua "Confederación Española de Pelota Vasca" que nacida en 1925 en San Sebastián, funcionó hasta nuestra guerra civil». (Historia del Juego de Pelota. Luis Bombin, pág. 410).

Zergatik, guda ondoren, 1941'an, batasun ori berritu zanean, «vasca» deitura kendu, eta «Federación Española de Pelota...» bakarrik utzi...?

Eta egun batez, Mexio'k, edo beste edozeinek eskatzen badu = eta ziur eskatuko dutela = «vasca» itz ori kentzeko, zer eskubiderekin ukatu edo ezetzatuko du, eskaera ori, lenago itz ori berak bazterreratu duan alkartasun batek...?

Dr. Hernandorena



## PILOTARIAK

# LAJOS TXAPELDUN



alde itzulikatzen dira 200-150 ri. Gero Retegik pixka bat ernaturik puntu bakar batzuk bereganatuko ditu bainan Lajosek aintzinaldia utzi gabe. Retegi «nerbios-tue» dago eta zenbat pilota funtsik gabe galtzen ditu eta alare Lajosi urbitzen zaio 17-18 Orduan partida dago hoberen hoberenean trabesak ere Retegiren alde itzultzen direla 200-100 ri. Badirudi orai Retegiren alde dela bainan honek berriz tantoa galdurik oraingoan ler egiten du. Lajosek falta dituen lau tantoak eginen ditu eta partida irabazi 22-17. Lajos Txapeldun. Zorionak.

Ez da partida ona izan, bi pilotariak ere ez dute askorik egin, biek ere pilota aisa galtzen zutela. Telebistan bitartez hori ederki ikusi ginuen.

Partidak 60 minutu irau du, bainan yokoan 12 minutu baizik ez. Hor ageri da bi pilotariak zenbat egonaldi egin zituzten. Bien artean 192 aldiz oneratu zuten pilota. Tanto luzeena amairugarrena 18 pilota oneratuak. Saketik Retegik 5 tanto eta falta bat. Lajosek 4 tanto saketik faltik gabe. Erreboteraño Lajosek bein. Lajos airetik zazpi aldiz sartu zen borts uts eginik. Retegi airetik 26 aldiz, borts uts eginik eta iru tanto irabazirik.

Federazioko Aintzindariaren eskutik Lajos Txapeldun berriak, ohorezko Txapela eta Kopa hartu zituen. Retegik ere Kopa ederra eskuratu zuen. Zorionak bi pilotari.

—oOo—

Zortzi egunen buruan eta berriz Anoetako plazan negurtu dituzte beren ahalmenak Lajosek eta Retegik, bainan oraingoan Txapela jokoan ezarri gabe. Zortzi egunez lenago partida txarra egin balin bazuten oraingo hontan ez da ala gertatu. Partida aski atakatu eta ona bi pilotariak ederki ari izanak direla. Partida hau ez zuten Telebistatik agertu eta gehienetan hori gertatzen da, partida txarra agertzen da eta ona ez. Oraingoan ere Anoeta bete zen eta han bildu zirenak denak kontent ikusi zuten partidarekin.

Oraingo hontan Retegik irabazi du 22-18 eta partidak izan ditu gora-berak naiz ta erasundarra beti aintzinean ibilia den. Bi pilotariak duten guzia erakutsi zuten. Partida hontan 243 pilota oneratu zuten (Finalean 192 bakarrik) eta bi pilotariak ere aisa trankilago eta hobekiago finalean baño. Hor indarrak berdintsu daude eta ez litzake gaizki irugarren partida bat. Pilotazaleak pozituko giñake.

Anzanarri

# ERRIZ - ERRI

## ITOIZ (Longida)

Aoitzetik Frantzi aldera dijon bide ondoan dago errixka au, toki zoragarri batean. Bere ankapean alkartzen dira Irati ta Urrobi ibaiak. Toki zelai batean dago mendiz inguratuta. Onduan dauden mendi aiei «txaparral» izena ematen die.


Etxeak mendi bide luze baten inguruan daude, erdian eliza dutela ta amabost garren gizaldiko gaztelu zar bat beste muturrean. Nunai mastiak eta garia ikusten dira.

Eliza arrizkoa ederra erri onentzat, gotikoa da. Sarrera garai berdinakoa du. San Martin izena daramak. Zuzeko iduri eder batzuek ba ditu; Amabirgina eserita bere aurrakin amalau garren gizaldikoa, Gurutze eder bat amabost garren gizaldikoa ta gotzai bat ziurrazko San Martin izanen dana amasei garren gizaldikoa. Bataio ponte borobil bat erromaniko gotiko tarteko garaikoa du. Eliza barrenean ba ditu bi egaltxo, bata bestea baino zarragoa.

Orain dala ogei ta amar urte amaika famili bizi ziran, gaur lau bakarrik. Gauza on bat egin dute, ura ekarri ta etxetan jarri orain dala urte bat. Naiz tokia ezin ohea izan, eroso, alaia, osasungarria ta lana bertan dutela, erria ustutzen dijoa. Uste dut emen biziko lirakela iri aundietako auzoetan baina lasaiago. Joate ori gaurko moda izaki. Ez nintzake arrituko erri au udaran jendez betetzea berriro.

Euskal girorik ba al dago? Ba dira eun urte euskera baztertu zutela. Larogei urteko aiton batekin topo egin nuan. Euskeraz ba zekizkin itz batzuek. Bere aitak ba omen zekin ondo. Bera aurra zalari lanera maastegitara etortzen omen ziran euskaldunak batez ere baztandarrak. Aietik ikasi zuan euskera ulertzeko aina. Etxeak oraindik euskal izenak daramazkite; Bernatena, Toarena, Jakoi, Irigoi (gaztelu zaarra).

Erri au ez da errexaz aztutzen. Ugain Borda



«Irigoi» gaztelua



## GOIZUETA

Sebeino

Azkeneko aldian «Shalto» zena bertsolariaren gañean zerbait esan nizutenean, agindu nizuten kontatuko nizutela bera Naparroko Txapeldun atera zeneko biajea. Hara nola izandu zen.

Aurreko urtean Arozamena lehenengo eta NARBART «Shalto» bigarren gelditu ziran Iruñan.

Deia egin zioten urte hortako txapelketarako, eta ez zeukan gogo aundirik bada bere adiskide automobilla zeukana Bibiano Fiteron zegola eta baita don Saturnino ere bakaziotan erritik kanpora eta ez zeukala zeñekin ioanik. Ala esan zidan bezpera arratsaldean.

Nik esan nion ezetz inñolaz ere ez zela geldituko ioan gabe, azken orduan taxi bat erakarraziko nuela eta besterik ez bazen biok ioain gñala.

Arrats hartan etorri zen Bibiano eta baita don Saturnino ere. Don Saturninok Aldea Nueva del Ebro erritik nere adiskide batek erregalatuta ekarri zidan garrapoi bat ardo an zen onenentxoena; emeretz zuten gradu izango zituen.

Nere emazteari preparazi nizkion bi bokadillo (guk hemen bi zekote esaten dugu), urdaiazpikoa, arraultza eta aragi serra bana.

Bezperan ekarritako garrapoitik bete nuen limeta bat ardo nolakoa zen probatu behar genuela eta ala Bibianokin atera gñan Iruña aldera.

Lekunberrira gñanean esan nion Andreseri gosaltzeko gogorik egin ote zitzaion eta pukadu bat lain nuke (jango nuke) esan zidan.

Ala eman nion bere zekote edo puskaliorra, limetatik baso bat ardoz bete ta Bibianori piska bat manso sio ioateko esan nion, eta edan zuen baso ardoa, bestea Bibianok eta bestea nik.

Galdetu nioten zer moduzkoa iduritu zitzaioten eta edan gusto ona eta leguna ematen zuen esan zidaten.

Añezkar'era orduko bukatu genun iana eta bigarren baso ardoa.

Edan zuen Andresek eta ala dio: «Sebeino!! Zer da hau? Hau barrango berotasuna! Niri gaur Iruñako Teatron muturra biurtu biar dianak komeriz zeuzkik».

Eta esan bezala batere axolik gabe burua arro arro zuela azaldu zan eszenarioan eta... Txapeldun!!

Nere ardoari zor ziola txapela esan zidan!!



## BAZTAN

BERTSOLARIAK

Erran bezala joan den Mayatzaren 16'ean bertsolari besta eder bat izan giruen Elizondon. Antxitoneko Trinketea euskaldun yendez bete, han baziren baztandarrak, ultzamarra, bidasotarrak, gipuzkoar jatorrak eta bai mugaz-bertzaldeko anaiak ere, denak bertsolari bestara etorriak eta denak atsegiñe: beterik beren bozkarioa nabari zutela.


Martin ahertzarra, Lasarte leizarra (Gipuzkoako Orioko herria bizi dena), Lazkao-Txiki lazkaotarra eta Agirre azpeitiarra, lau kobleri lenbiziko mallakoak eta hoi en artean gure herriko bertsolaria Klemente.

Besta izigarri ederra izandu zen eta erabilitako gaiak ere aski onak eta bazutela nondik lotu, bertsolariak gatz eta piperra eman ziotelarik. Han entzun genituen Martin eta Lazkaoren bertso yostakinak eta Agirre ta Lasarteren bertso mamitsuak ere denak ongi emanak eta denak yendearen gogokoak. Kantaldiaren asieran lau bertsolariak bertso bana kantatu zuten Andres NARBART zenaren omenez. Bertso hungiariak bai gure kobleriak beren lagun zenari eskeñi zikitzenak.

Entzuleek loriaturik esku-zarta ta txalo beroekin erakutsi zuten beren poza ta atsegiña. 400 entzule den artean eztago gaizki, bertsolari besta batera biltzen direnak denak behar baitute euskaldun garbiak izan; besta hau ezpaita pilota futbol edo beste yostetak bezala, ikusliarrak berdin izan daizkela euskeraz dakitenak nola ez dakitenak edo berdin izan daizkela Parisakoak nola Zienpozuelsokoak. Gure besta maitagarri hori euskaldunentzat bakar bakarrik da. Entzuleen artean beste urtetan baino yende gazte gehiago ikusi dugu eta aunitz multiko ta neskatxak ere hoi en artean. Horrek aunitz poztu gaitu, gazteta baitago gure etorkizunaren esperantza ta itxaropena. Ikusi ginen ere gutienetik amar edo ama bi «magnetofón» eta orai maxina hofek hartu dutena bazter guzietara barreyatuko da eta badakigu ere batek baño gehiago Kaliforniara igorri beharra dutela.

Gure goresmen bizienak bertsolari. Ederki motellak eta gure Yauk urte aunitzez kontserba zaitzate. Biza zuek! Eskerrak ere entzule guzietari eta yarraiki zuen zaletasun bizi hortan. Bestaren irabazkiak Elizondoko Ikastolarako izan dira.

Se autoriza la copia para la inversión. M. IZETA © GOBIERNO DE NAVARRA



# LESAKA

Txikia, ixilla ta polita; buru-berotze ta iskanbillatik urruti, pake zoragarri batean, guztiak famili aundi bat, bi milla anaien famili eder bat egiñaz; Lesakako herria gaur amabost bat urte. Gaurko gazte hok haur gñaneko Lesaka.

Bañan... Bañan, kontrabandoak berekin arrisku geiegi zakarrela ta iru bei ta bi zekorren zai egiterik etzegola, gazteak, bat banaka, Ameriketako bideak artu zizkiguten, sos batzuk eskutan ikusi beharrez. Sasoa herriatik urruti ta indarrak gabe lur lanetan aritzerik ez... Huraxen komedia! Ta zer egin, ordean?

Ortan gñala, gizon batzuk —japonesak, amerikanoak edo nik ezdakit nun arraiokoak— fabrika berri bat jaso beharrez leku egoki baten bila zabiltzala sumaturik, prisaka ta zerrendaka, bi aldiz pensatu gabe, deitu ta bi millo pezetzen laguntza eskeiñia, belaunika bezala, Lesakan fabrika berri hura asitzeko eskatu genion...

Ta, baita etorri ere Lesakara. Aleluia ikaragarria herri guztian. Zeren fabrika jaso bear zuten, ordean, gutxi zekiten. Geienakeri berdin iduritzen zaigun, gure poz hartan itxutuak, eta kolore guztietako usteak aditzen ziran. Prisaka egindako dei harek ordun inñorrek pentsatu etziten ondoreak ekarriko zizkigun. Herriak, oberena ustean, bi millo pezetakin piztu zuan sua, ezin itzaliz... Geiegi indartu...

Inñor konturatu orduko, etorri gera guztiok, sukar gorri batek menpetuak, arro-arro, ituri beratik edatera. Ta iturri hau noizpait agortuko balitz...? Illunabar epelean, ulitx aula armiarma sarean eroritzen dan antzera: ateratzerik ez! Kamion zaleeri gertatzen asi zaiona...

Geiegi indartu sua...

—oOo—

«Herri guztiari iatera ematen ari gera»: hau degu azkeneko ateraldi ernea. Herri guztiari iatera ematen ari dira. Ta, egia. Ez Lesakako herriari bakarrik noski, baita iantziar, etxelartar, aranztar... mordoskada ederrari ere. Fabrika honek eman digu, ta ematen ari zaigu bizi guztia. Gau, berari esker, inñor ezdago ogei duruko baten faltan. Nork ukatu dezake? Benetan, herri guztiari iatera ematen ari dira.

Ia; bañan ta gutaz urrikalduta ematen ote digute iatera? Gure izerdiakin irabazitako ogia da iaten deguna, ta ez inñor emandakoa. Herri guztiari iatera ematen ari dirala, ta nork ematen dio iatera fabrikari?

Gozo egingo luteke negar gure aitonek burua altxatuko baluteke. Gozo, bai, negar, aiek ainbeste urtian zear altxatu ta apaindutako herri polita ain ondatu ta menpetua ikusirik; negar gure baserri zuri ederrak itxiak, gure erreka garbiak «minbizi gorriak» kiskaliak ikusirik; negar gure haur erneak erderaz iostean aditurik... erderaz, maketoen antzea, guraso gazteen zabarkeriz...

Ta gu, gaurko lesakarrok, gure sort-herria ain zapuztua ikusi arren, ixillik, ta ainbeste aldiz, konforme!!

—oOo—

«Moda»; «moda» omen da norberak sinesten duena gurtzea; «moda» sentitzen duena erran ta egitea, legeen lokarrik gabe bizitzea... Modan dago, baita, herri haien nortasuna, jatortasuna zaitu ta indartzea. Bañan hori ez, hortarak borondate pixka bat bear baita.

Herri haien «estetika»ri buruz itz eder bat baño geiago adituak gera. Modan balitzake bezala hau ere. Ba, nun daudez gizon iakintsu oiek lesakarrok ain aul utzi bai-gaituzte.

—oOo—

1.—Orain berriro ateratako gure «Plan de Urbanismo» deritzaionak digunez, herri barruan bi piso baño geiagoko etxerik ezin omen degu altxatu; ta ain xuxen ate-atean burnizko «pabellon» galanta bat egiten ari zaizkigu...

11.—Gure kaleak salbatzeko, bide berri bat asi ziguten, ez noski atzo. Lehendabizi herritar batzuk lurrak saldu nai etzioztela. Haiak behartuazi saltzera, ta orain? Zer arrazoi dago orain iru illabete oso osoak geldirik egiteko? Ta bitartean eunka ta eunka milla kilo herrien erdi erditik ekarri ta daramazkite. Kale ta zubiak arrailduta; gure haur ta zaharrak etxe barruan ikaraturik.

111.—Burdik ezkillak gaua ta egun; bide bat urratu ta iduritzen zaion lekutik egin ta kitto...

Ta gu, bitartean, ixillik; beldurka. Geldirik egoten ez denak bai-daki zer daukan. Zezenak alkarri daudiotena: beldurra. Hori gaur. Ta bertze amar urtien buruan?

Bañan ongi begiratuta ezda herria ta fabrian arteko burruka baño obeagoa lesakarren arteko gerra otza, herritaren arteko nor geiago izan nahia. Hau degu, noski, gure etsaierik kaltegarriena: alkar ezin ikusia, diru-gosea; ondokoa baño lehenago nahi igo, sentimentu ta eskubide denen gaiñetik. Dirua herriko nagusi, ta bi durungatik alkar saltzeko prest.

Gure aiton zaharren semeak, lesakar amorratuak atzo, herria saltzeko gertu, bi sos geiago irabaztegiatik. Lanak badira lesakarrak gerla sinestent!! Gero, nola nahi degu bertze gure herria zaitzea?

Honela, gauz bat ta bertzez, Lesakako jatortasuna usteltzen badijoa; euskera gaixoa galtzen, oitura zaharrak ahazten. Onela, ain lesakarrena zan gure Lesaka, iende arrotzen eskuetan utzitzen.

—oOo—

Ta urte batzuen barruan, afal ondo batez, aita gaztea asiko zaio bere haurtxoari:

«Erase una vez un pueblo pequeño, tranquilo y bonito...» (Maitzak 31 a.).

ANTXON

## BAIONAKO ASTEA

### Euskal kultura gaur

Euskal erakustokian (musée basque)  
Marengo karrikan, Baionan  
UZTAILAREN 3-etik 8-erat

3 a	17 etan
Larunbata	Industrial lanbide berriek, zer kultura ekartzen.
BAIONAKO FERIAN:	7 a
Primak euskal lanentzat: liburu, artikulu, kantu.	Asteazkena
4 a	10 etan
Igandea	Lur lan molde berriek zer lur gizon berri sortzen?
BESKOITZEN:	17 etan
Joannes Leizarragaren 400 garren urteburua.	Pertsulari beharrik badugunetz?
5 a	8 a
Astelehena	Ortzeguna
10 etan	10 etan
Kultura zer da gaur?	Ikastoletarik zer atera?
17 etan	17 etan
Kultura aldaketak lehengo euskal herrietan.	Soziologo hitza Bestalde arratsetan
6 a	21 orenetan:
Asteartea	Buruz-buru-ka: marxismaz Mahain biribilak: teatroaz, olerki ta kantuez kazeta, aldizkari ta entzun ikuskiez. (audiovisuel).
10 etan	
Marxisma sartzen ari: zein, nundik, nola?	

## FELIX HUARTE Jaunaren Oroitzapenez

Berandu bada ere ezdugu gure aldizkarian Felix Huarte jaunaren eriotzaren berri tristea aipatu gabeen pasatu abal izaten.

Gure Heroko honek ioan berri den Martxoko numeruan eta Jose Mari Satrustegi apez jaunak idatzitako izenburutzat jaukan izkribu goxo batean Huarte eta Urmeneta jaunei beren Diputazioaren karguak utzi berriak zituztela, eskerrik berotuenak ematen zizkien Nafarroaren alde ainbeste gauz onik eginak izaten zituztelako. Aibeste gauz hauen artean gure euskeraren alde egindakoak aipatzen zituen.

Orain berriro, gure orrietara Huarte jaunaren irudi eta oroimena datoz. Apirilaren egun batean 74 urte zituelarik lehengo Nafarroko Diputazioaren Lehendakaria izan. Guk, Nafarroko Diputazioaren euskeraren alde lan egiten gaudenok, Huarte jaunaren oroitzapena aurrean daukagu, bera izan baitzan orain bost



urte pasatuak direla, Euskal "Príncipe de Viana" aldizkari honi ateratzeko baimena eman ziona.

GOYAN BEGO Diputazioaren Lehendakaria izana, gizon, argi, langille, napar seme zintzo eta aundia.

## GIZARTE GAIAK

Gai hauetaz idazten azerakoan, gogoan dut ekonomia erran-nahia, molde ertsiatarat ulert daitekeala; bai dut gure urbil, eta gutartean, horri buruz edatu den ideia bitxiaren berri. Duela denbora guti artio, gauza madarikatua zela, aipatu ere ez zitakeana (bitartean norbaitzuentzako —ekonomia zela medio— bereak egiten zuela, naski); hura nardatuz, «izpiritu-zale» izatea garbiago zelakoan. Ekonomia, gizonarekiko ez balitza bezala.

Iritzi hori arras kaltegarria delakoan nago; eta nahiz gu horrelako egoeran bazkatu egon, ahalegin-du behar garela beraien gaingaitzen.

Bestalde, ohart gaitezten hauk gai zail xamarrek direla, eta gainerat aldizkari batetan ari garela. Horren-gatik, ez beza nehorke uste, espezialistentzako lan bat irakurtzen ari denik. Ez daiteke eta.

Eta goazen arirak. Gizatasunaren aztertu ahal izateko, zerbaitetan oinarritu behar da azterketa hura. Nondik norakoaren ikusteko, aize-orratz ahalik egoki eta zehatzena behar da eduki. Horretan, orok bat omen gatozi. Eta dakikegun bezala, hori da gizatasunaren betidaniko kezkarik haundietakoa. Zer garen, nondik gatozen eta norat goazen. Egiten dugunaren arrazoin-eragille eta helburuen eza-gutzea, alegia. Nahiz gizonak hau, azken pundutaraino ezaguturik ez izan, beti horri buruz doa; eta kondaira zehar, esplikabide aunitz azaldu da, Greziako klasikoetatik asi eta, egungo egunekoak artio.

Ikasi eta taxutu beharko genituzkeen ameka pundu aipatu ere egin gabe, guri egun artio sortu diren azter-bideren artean, egoki eta baliotsuen deritzaguna azaltzen bermatuko gara.

Sar gaitezten bada arian, eta gizatasunaren jokabidea non datzan argitzen saia. Gizon bat ez da hainbat bere buruz duen ideia dela medio jukatzaren nola bere egitetatik. Bada, gizatasunarekin gauza bertsua gertatzen da. Gizatasunak bere izatetaz mota askotako esplikabideak ditu; besterik da, ordea, uste duen bezala izatea. Horren jakiteko, sakondu beharko genuke frango, eta mendeak zehar gizatasunak artu dituen jauntziak alde baterat utziz, gure izatearen benetako sustraiari buruz abiatu. Funtza hau delarik, goazen aintzina.

Gizonak ez dezake ahal duena bai-zik egin. Eta ahalmen honi ez diot duen baino inar gutiago ematen; ez gehiago ere. Gizon bat ez da, jeneralki, nahi duelarik langille izaten, ezinbestezkoa zaiolaketoz bai-zik. Edo-ta ez da injeniero, sendagille ala fisikoa, askatasun absolutu baten giroan hura izatea deliberratu duelaketoz, ahalmen histori-

ko batez orniturik dagokelaketoz bai-zik; eta berak uste baino baldin gehiago direla medio.

Bainan, nehorke ez beza, otoi, predestinazio delakoari buruz ari naizenik pentsa. Hau dena, jakin ere badakit, ohargabeen gertatzen dela; gizona ez dela azken konsekuentzitaraino horri ohartzten. (Agian egunen batetan horrela dateke). Bainan badakigu ere, hau dela jeneralean gertatzen dena, eta kondaira ikasi eta aztertzerakoan, osotasunari so egon behar garela. Hain zuzen, izatekotan, kasu partikularrak egoera jeneralaren arauera baidau-de, eta ez aitzitik.

Teknikarekiko adibiderik aski adierazgarri dira, erran nahi dugunaren argitzeko. Konparazio baterat, feudal-aroko sendiak ez zezakean auto bat gutizia, eta gutiago eduki, ez nahi ez zuelaketoz, asmatzen ahal ez zezakealaketoz baino. Edo-ta beste alorretarat joaz, goseak hiltzen dagokean gizarte batek, gaizki sort lezake, konparazione, Mozart-en operak. Doi doia bizi den gizarteak nekez baidezake bere lehen behar-erak betetzea baino gehiago egin.

Honekin, naski, ez dut nehundik ere gizonaren ahalmena ttipitu nahi. Nik ez baidituz zein beharrek diren bete behar direnak mugatzen; ala ez lukeala beste beharrik desiratu behar erraten. Ez, bakarrik ahalmen horren konplejidade eta sakontasunaz ari naiz. Haren alabeharrezko kondizionamendutaz.

Bestaldetik ere, ez naiz atzentzen Mozart-ek bere operak konposatu zituenean, millaka zirela goseak hiltzer zeudezinak. Naski ezetz. Bainan honek ez du arestion erranikakoa deuseztatzen. Zeren Mozart-ek bere operak egin ahal izan zituen, horretarako ameka gisako posibilitate zegoelaketoz. Musika eziera bat, kultura mailla, joile, entzule, diru nahikoa, eta beste. Hala ere —eta hemen azaltzen da gizon baxotxaren nortasuna— hauk guztiak eskumenera zituzketenak asko izanen ziren, bainan Mozart, bat bakarrik izan da.

Besterik litzake, Mozart-ek ala beste askok zituzketen ahalak, zergatik zituzten aztertzea. Alegia, zergatik batzuk denbora eta bestelakorik eduki, eta beste batzuk ez? Nondik dator hau?

Bainan horren ikasteko, gizatasunaren kondairan sartu beharko ginake, eta egun artio eten gabe dirauen prozesoa aztertzen asi. Erran gabe doa, gizona prozesu honen itur-buru, medio eta helburu dela (sarri, helburua denik nehundik ikusten ez bada ere). Gizonik gabe ez baidateke ez ekonomiarik, ez eta deusik ere. Bainan urrengo batez mintzatuko gara honetaz.

Anko Sendoa

# Nombres Regionales

Dada la innegable actualidad del tema creemos conveniente dar a conocer algunos textos legales referentes a los nombres regionales vascos.

Las cláusulas de la resolución que hoy transcribimos se refieren al expediente nº 82/1969 del Juzgado de Primera Instancia, número Siete, de Bilbao, que a requerimiento de don Pedro Agustín Enbeita Ealo, autorizó la inscripción de nacimiento de su hija Aintzina en el Registro Civil de Guecho, el 20 de marzo de 1970.

Textualmente dice así:

«CONSIDERANDO»: Que aunque sea digna de elogio la erudición que muestra la resolución apelada, dictada por el Sr. encargado del Registro Civil de Guecho, hay que tener en cuenta que en la legislación española no rige el sistema del número cerrado en la imposición de nombres y que tratándose de los regionales deben permitirse, como se desprende de la resolución de la Dirección General de Registros y del Notariado de 19 de noviembre de 1969, cuando su significación tiene el valor de nombre propio de persona en el lenguaje o en recuerdo vivo de las familias o de los pueblos, o la palabra designe personaje histórico o ente con relevancia cultural suficiente, siquiera en la región, como nombre personal».

«CONSIDERANDO: Que en el presente caso tratándose de palabra que carece de traducción al castellano como tal nombre propio, según acredita el informe o dictamen de la Academia de la Lengua Vasca, no pueden tener apli-

cación sin más las prohibiciones del art. 54 de la Ley del Registro y 192 de su Reglamento y lo que hay que comprobar es si dicho vocablo es usado como nombre propio de persona o tiene alguna otra significación popular dentro de la región y a las que antes se ha hecho referencia digna de perdurar; y como en el caso presente no sólo de los informes de la indicada Academia —Centro de prestigio en el País Vasco—, sino del más elocuente del Arzobispado de Pamplona se deriva que la palabra «Aintzina» corresponde al término popular de una advocación mariana que se usa como nombre de mujer en algunas partes del país vasco y que hace referencia a la advocación de Nuestra Señora de la Antigua, no hay inconveniente alguno en incluirlo en el Registro Civil, aunque sea poco usado y conocido, de la misma forma que se han incluido otras advocaciones marianas regionales».

«CONSIDERANDO: Que por ello procede la estimación del recurso

de apelación con declaración de oficio de las costas causadas.


Vistos los artículos citados y demás de pertinente aplicación al caso de la Ley y Reglamento del Registro Civil, y de conformidad con el dictamen de la Fiscalía de esta Audiencia Provincial.

S. S.<sup>a</sup> por ante mí, el Secretario, DIJO:

Se estima el recurso de apelación interpuesto por don Pedro Agustín Enbeita Ealo, debiéndose practicar en el Registro Civil la inscripción interesada por el mismo y en la forma solicitada, con declaración de oficio de las costas causadas.

Con certificación literal de la presente devuélvase el expediente original al Registro Civil de su procedencia que deberá acusar recibo de su llegada.

Notifíquese al Ministerio Fiscal y al interesado».



## EUSKAL HERRIKO LEIOA

DISKO BERRIAK

«Herri Gogoak» delako euskal disko Etxe honek Benito Lertxundiren disko bat atera berri du. Lau kantu dauka eta lauak Lertxundiren disko aundi batetik atereak dira. Kantuen izenak: «Ezin uka», «Umeek ere jakin dute», «Triste jartzten nauzu», eta «Illunpetako gizona».

EIBARREKO «EUSKERA LAGUNAK» ELKARTEAREN BERRIAK

Elkarte hau Eibarren sortu zan euskeraren laguntzeko. Orain elkartek honek gure mintzaeraren alde bere lan egiteko asmoak agertzeko agiri bat zabaldu du. Hona hemen agiri honek esaten dituenak: «Herri agintariengandik euskararenganako begirapena eta laguntasuna lortu, bai irakaskintzan, bai herri bizitzan.

Gure euskal hizkuntza irakasteko tokiak gehiagotu, eta orain horretan mintzatzen diranei lagundu. Gure umentzat, hizkuntza bitako eskolak sortu eta sortu erazi, eta daudenei lagundu.

Euskera ikasteko metodo berriak eta egokiak argitaratzea lortu; eta beste ikasgai guztiak ere bai.

Irakasle berriak behar dan bezala gertutzeko laguntasuna eskeini, irakasle egokien premia aundia dagoelaketoz.

Euskal Kulturaren aldeko joera guzietan indarra eman; hitzaldiak, teatro jaiak, zine erakusketak, literatura lehiaketak, liburuak, aldizkariak, eta abar...

Eta, gainera, gure hizkuntza maite hau indarbertitzeko, legeen arabera egin leitekeen guziaz egin».

Eibartarrek hitz garbi eta argi-kin zer egin behar dan gaurko egunetan euskera bizitzeko esan dute. Iklusle

## Euskal izenak

### 7.-AINTZINA



Esan dezagun, hasieratik, izen berria dugula gure izendegian. On hartua izan da, bai elizaz, eta bai gobernuaren lege-gizonen aldetik. Era hontan gertatu dira gauzak: Guecho-ko Ormaetxe baserrian neskatilla bat sortu zen 1969-ko San Juan aurrean. Bere aitak Aintzina izenarekin bataiatu zuen; baina, Herriko Etxean atzera bota zioten.

Lege-gizonaren arrazoiak hauek ziren: 1) erderazko «delantero» ta «tradicional» esan nahi duela Aintzina hitzak; eta hori ez dela jende izen egokia. 2) Ez dela orai arte izendegian eza-gutua eta ez dagola Euskal-errian izen hortako Andra Mari-rik. 3) Ez dela ikusten emakume izena edo gizonena izan laiken; eta nahasketa sortu lezakela. Beraz, ezezkoarekin batean, erderazko Maria Teresa eman ta utzi zuten Enbeita-ren haurra.

OZTOPOAK

Kontuz ibili beharra izaten da euskal izenen kontuan. Ustez alde gabiltzen, kaltegarri gerta gaizke. Hori ekarri zigun Euskaltzaindiaren agiriak. Erdal itzulpen jatorrik ez duela esatea bat da; eta «Aintzina», Baxe-Na-

barreko «Aintzile» herriarekin nahastea oso beste bat. Nundik zuzendu nahasketak?

Bilbao-ko auzitegira eremana izan zen eztabaida. Guecho-ko legegizonak beste arrazoi askoren artean, hau zion: «Berez, ezin laike nola nahi izen berri-rik on-hartu. Euskeraz ditugun jende-izenak oso gutxi dira, eta orai-ko asmakizun guztiak berri-ka bezala jo laizke».

Aitaren erantzun jatorra: «Izen euskaldunik ez dugula? Berriz ere Pedro, Juan eta Fernando-ekin gelditu beharko dugu geurek erabiltzen uzten ez ba zagu».

IRUÑEN

Bilbao-ko auzitegian ez zuten ezer erabaki nahi izan eta Iruñe-ra bialdu zuten. Iruñeko epai-lean ez zekien «Aintzina» edo «Aintzile» hitza zen zalantzan zebilena, eta Kardenalaren eritzia eskatu zuten. Elizaren aldetik eragozpenik ez zegola esan ondorean, erderazko «N.<sup>a</sup> S.<sup>a</sup> de la Antigua» zekarrela gogora adierazi zion (Aintzina-koa); eta arrazoi horrekin baliatuta, «Aintzina» euskal izena, on-hartua izan da «Registro Civil» delako Herriko Etxean.

Sagi